

## 3.1. Mugikortasun-arloan hobekien definitzen zaituen animalia

### Batez ere A aukeratu baduzu:

Badirudi mundua zure kontra dagoela. Baina, hala ere, garraiobideen erabilera jasangarriaren aldekoa zara. Ez amore eman, zure ekarpena ezinbestekoa baita!

DORTOKA



### Batez ere C aukeratu baduzu:

Kontuz ibili behar zurekin. Txanponek zure ibilbidea markatzen dute. Hala ere, iraunkortasunaren mesedetan, zure interes ekonomikoetatik noizean behin aldentzea komenigarria izan liteke.

MARRAZOA



### Batez ere B aukeratu baduzu:

Munduak behar zaitu. Jasangarritasuna duzu buruan eta ekarpen egokiak egiten dituzu norabide horretan.

IZURDEA



### Batez ere D aukeratu baduzu:

Beti ahalegintzen zara erosotasuna bilatzen eta zailtasuna saihesten. Ongi dago, baina, apika, jasangarritasunari garrantzi handiagoa eman beharko zenioke.

NAGIA

